



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2012016KO IRAILAREN 22 an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 22 DE SEPTIEMBRE DE 2016.

Olaberrian, 2016ko irailaren 22an, arratsaldeko 18:00 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola, Maider Agirre Mugika, Elixabet Canales Segurola eta Mikel Etxarri Juanes, Aritz Arantzegi Areitio eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

En Olaberria, a 22 de septiembre de de 2016, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena, y los concejales, Nerea Castaño Irazola, Maider Agirre Mugika, Elixabet Canales Segurola, Mikel Etxarri Juanes, Aritz Arantzegi Areitio e Iñigo Sarasola Aranzasti .

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

AURREKO BILKURETAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

AKTEN

APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.

• 2016ko uztailaren 28ko Ohiko Batzarraren akta.

• Acta de la Sesión Ordinaria del 28 de julio de 2016.

Bozketa egin ondoren, bertaratutakoek akta ahobatez onartzen dute.

Efectuada la votación, el acta se aprueba por unanimidad de los presentes.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ALKATETZAKO GAIAK

TEMAS DE ALCALDÍA

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 106/2016etik 133/2016 bitartera.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 106/2016 al 133/2016.

Udal-kideak jakinaren ganean gelditzen dira.

Los corporativos quedan al corriente.

Bildu taldeko zinegotzia den Iñigo Sarasolak honako aipamen hau egiten du: alkatetza ebazpen hauen bidez 85.000 euroko kopurua gastatu dela kontratuetan, guztietan ustez, ez direlarik gutxienez bi aurrekontu egon.

El concejal del grupo Bildu Iñigo Sarasola, pone de manifiesto su disconformidad con el hecho de que se han decidido a través de decretos de alcaldía contratos por un valor de 85.000 euros, sin que en muchos, según le consta, haya más de un presupuesto.

Zera eskatzen du: kontratu txiki guztietan gutxienez bi aurrekontu eskatzea.

Solicita que en cada contrato menor, al menos consten dos presupuestos.

Alkateak, laburbilduz, honako hau erantzuten dio:

El Alcalde responde sucintamente lo siguiente:

- Urte hasieran milloi bateko diru-zaintzako gerakina zegoen eta orain, diruzaintzaren egoeran ikusi daiteken bezala, hiru miloi.
- 85.000 euro hauek, montante guztiari dagokionez suposatzen duen portzentajea oso txikia da.
- Kontratu txikietarako maiz kontutan hartzen diren irizpideak esperientzia, egokitasunezkoak eta praktikak erakutsitakoarenak dira, beti aplikagarri den araudiaren pean.

- Al inicio del año había un millón de remanente y tal y como se puede ver en la situación de tesorería, ahora hay tres millones.
- El porcentaje que suponen estos 85.000 euros en el montante total es exiguo.
- Que los criterios que a veces se adoptan para los contratos menores, son los criterios de la experiencia, oportunidad y práctica, siempre amparados por la normativa aplicable.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

132/2016 eta 133/2016 alkatetza dekretuen berrespena.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Bi administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dira Udalaren kontra. Bata, Olaberriko Udalak trafiko gaiari dagokion 2016ko apirilaren 18ko espediente zigortzailean emandako ebazpenaren aurka, (prozedura laburtua, 239/2016) eta bestea Olaberriko Udalak trafiko gaiari dagokion 2016ko apirilaren 25eko espediente zigortzailean emandako ebazpenaren aurka, (prozedura laburtua, 229/2016).

133/2016 eta 132/2016 alkatetza ebazpen bidez honako hau ebatzi zen:

“LEHENENGOA: *Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiari igortzea Estatuko Administrazio Orokorra aurka egindako jardunari dagokion administrazio-espedientea eta, horrenbestez, Olaberriko Udala prozesu horretan ager dadin erabakitzea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 50.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

BIGARRENA: *Jon Orue-Etxebarria Iturri letratu jauna izendatzea, epaian Olaberriko Udaletxearen ordezkari eta defentsa lanak egin ditzan, Udalaren interesak defendatzeko egoki diren akzioak egikaritzeko gaitzen zaiolarik.*

HIRUGARRENA: *Erabaki hau egiten den hurrengo ohiko bilkuran Udalbatzak berrestearen mende jartzea.”*

Dación de cuenta y ratificación de los decretos de alcaldía 132/2016 y 133/2016.

Se informó del tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se han interpuesto dos recursos contencioso-administrativos contra resolución del Ayuntamiento de Olaberria recaída en el expediente sancionador en materia de tráfico de 18 de abril de 2016 (Procedimiento abreviado 239/2016) y contra resolución del Ayuntamiento de Olaberria recaída en el expediente sancionador en materia de tráfico de 25 de abril de 2016 (Procedimiento abreviado 229/2016).

Mediante decretos de alcaldía 133/2016 y 132/2016 se acordó lo siguiente:

“PRIMERO: *Remitir al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia el expediente administrativo correspondiente a la actuación impugnada por la Administración General de Estado, acordando por lo tanto la personación del Ayuntamiento de Olaberria en dicho proceso, según lo establecido en el artículo 50.2 del la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.*

SEGUNDO: *Designar al letrado Don Jon Orue-Etxebarria Iturri para el ejercicio de la representación y defensa en juicio del Ayuntamiento de Olaberria, quien queda facultado para la dirección de las acciones que resulten oportunas en defensa de los intereses del Ayuntamiento.*

TERCERO: *Someter este acuerdo a ratificación del Ayuntamiento Pleno en la próxima sesión ordinaria que se celebre. “*



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Aipatu ebazpenak eman eta hurrengo Ohiko bilkura hau denez, hona ekartzen dira berretsiak izan daitezzen.

Siendo esta la primera sesión plenaria que se celebra tras la adopción de las citadas resoluciones, se somete al Pleno para su ratificación.

Gaia bozkatzeko da, 132/2016 eta 133/2016 alkatetza ebazpenak berresten direlarik gehiengo absolutuz, Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Se procede a la votación, quedando ratificados las resoluciones de alcaldía 132/2016 y 133/2016 por mayoría absoluta con la abstención del concejal del grupo Bildu.

Sarasola jaunak, bere botoaren zentzua azaltzeko helburuarekin zera dio: abstenitu egin dela espedientea aztertu behar duelako.

El Sr. Sarasola con el fin de exponer el sentido de su voto, afirma que se ha abstenido porque necesita estudiar el expediente.

Alkateak bere aldetik, batzorde informatzaileetara etortzea gonbidatzen du.

El Alcalde, por su parte, le invita a que acuda a las comisiones informativas.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Hauek dira joan zen batzorde informatzailean udal-kideei aurkeztutako fakturak:

Estas son las facturas presentadas a los corporativos en la pasada comisión informativa:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK S.L.	B20719456		FRA. 256	6.047,59 €
2	PISCINAS HIDROSOLAR, S.L.	B71085419		FRA. A/632	3.085,50 €
3	CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A.	A20147724	ADO-99-962/2016	FRA. 245	5.185,15 €
4	E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P.	B20826426	ADO-99-953/2016	FRA. 32	3.290,22 €
5	SOROA ARQUITECTOS S.L.P.	B20758884	ADO-99-910/2016	FRA. 65	8.133,26 €
6	EULEN S.A.	A28517308		FRA. 3011681	4.755,82 €
7	IZFE	A20456976	ADO-99-877/2016	FRA. 2016/978	5.403,71 €
8	GUREAK BERDEA S.L.U.	B20502613	ADO-99-876/2016	FRA. 1601590	3.233,79 €
9	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-943/2016	FRA. 3014961	3.455,32 €
10	CONSULTORES DE GESTION PUBLICA S.L.	B81823809	ADO-99-875/2016	FRA. 096	6.655,00 €
11	ORSAL, S.L.	B31750250	ADO-99-859/2016	FRA. 254-16	14.118,28 €
12	GOIHERRIKO TRESNA KOOP. B. MUGATUA	F20372975	ADO-99-856/2016	FRA. 00003	3.281,52 €
13	GUREAK BERDEA S.L.U.	B20502613	ADO-99-993/2016	FRA. 1601847	3.233,79 €
14	ELEKTRA S.A.	A20677969	ADO-99-995/2016	FRA. 622295/2016	21.080,57 €
15	MONDRAGON LINGUA	F20072609	ADO-99-1030/2016	FRA. 162017	7.868,00 €
16	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	ADO-99-947/2016	FRA. 2016000176	81.960,45 €
17	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	ADO-99-948/2016	FRA. 000157	17.777,11 €
18	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	ADO-99-949/2016	FRA. 000158	12.342,88 €
19	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	ADO-99-950/2016	2016000177	30.278,58 €
20	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-1037/2016	FRA. 3020967	4.755,82 €
21	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-1042/2016	FRA. 3022079	3.455,32 €
22	ZERKI KIROL ZERBITZUA	F20072609		FRA. 09/16	6.865,24 €
23	ZERKI KIROL ZERBITZUA	F20072609		FRA. 093/16	6.779,93 €
24	ZERKI KIROL ZERBITZUA	F20072609		FRA. 096/16	3.936,74 €
25	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A.	FA20053773	ADO-99-701/2016	FRA. 182	52.482,48 €
26	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075		FRA. 2016000179	37.036,64 €
27	EXCAVACIONES GAÑERA S.L.	B20659793		FRA. 34	3.267,00 €
28	EXCAVACIONES GAÑERA S.L.	B20659793		FRA. 33	10.483,27 €
29					
30					

GUZTIRA	370.248,98 €
----------------	---------------------

Iñigo Sarasolak Alkateari Consultores de Gestión Pública, S.L. enpresak egindako txostena eskatzen dio.

Iñigo Sarasola solicita al Alcalde que se le de el informe realizado por la empresa Consultores de Gestión Pública, S.L. .



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Alkateak honako hau erantzuten dio:

- Orain arte aurkeztu dutena zirriborro bat besterik ez dela.
- Ez diola emango txostena lehendabizi langileei aurkeztu arte, afektatuak diren heinean.
- Dagoen zirriborroa Sarasola jaunari aurkeztu ziola eta honek testualki erantzun: "yo de ese marrón me abstengo".

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2016ko irailaren 13ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **3.831.729,04 euro** ditu.

Galdera eta erreguak

Iñigo Sarasola, BILDU taldeko zinegotzia:

- Funeraria Vascongada eta bizilagunen arteko arazoa:

Gaiaren inguruko informazioa eskatzen du.

Idazkariak zera erantzuten dio: gaia oraindik auzipean dagoela, irmotasunik ez duen lehenengo aurkako epai bat

El Alcalde le responde lo siguiente:

- Que lo que han presentado hasta hoy es un borrador.
- Que no se lo va a dar hasta que lo presente ante los trabajadores municipales, que son los afectados.
- Que el borrador existente ya se lo presentó al Sr. Sarasola y que este dijo textualmente "yo de este marrón me abstengo".

Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 13 de septiembre de 2016.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.831.729,04 euros**.

Ruegos y preguntas

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola:

- Problema entre la Funeraria Vascongada y los vecinos:

Pregunta a cerca de la situación del tema.

La secretaria le responde que todavía el asunto está "sub iudice", que existe una sentencia desestimatoria en primera



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

badagoela, eta aurkatuko dena.

Epaiaren eduki laburtua azaltzen dio, eta gaia sakonki ezagutu nahi izatekotan, espedienteaz aztertzeraz gonbidatzen du.

- EKOS-en txostena eskatzen du berriz ere.

Idazkariak, bidaltzeko arazo teknikoak egon direla azaltzen dio, baina konpontzen saiatuko dela. Bitartean, paperezko formatoa ikusgai dagoela esaten dio.

O.H.E. taldeko zinegotzia den Aritz Arantzegei jauna:

- Batzarren maiztasuna noiz erabakiko den jakin nahi du.

Alkateak, urteko azkeneko batzarrean edo beste urteko lehenengoan erabakiko dela erantzuten dio.

Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:25-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

ALKATEA / EL ALCALDE

instancia, que no es firme y que se piensa recurrir.

Le expone sucintamente los pormenores de la sentencia, y le invita a que si quiere conocer el tema en profundidad, acuda al expediente.

- Solicita de nuevo el informe de EKOS.

La secretaria le explica que debido a problemas técnicos no se ha podido enviar, pero se está trabajando en la solución. Entretanto, le dice que puede consultar el informe en formato papel.

El concejal del grupo O.H.E. Aritz Arantzegei:

- Cuando se va a decidir la frecuencia de los plenos.

El Alcalde le responde que o en el último del año o el primero del siguiente.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 25 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

IDAZKARIA / LA SECRETARIA